

**Bigarren urtea da segidan langileak hartu dituen**

## **EROSKI-K 311 LANGILE BAZKIDE HARTU DITU KOOPERATIBARA 2016AN**

- Gaur egun, langile hartu berri horiek zenbatuta, 8.046 Langile Bazkide daude
- Langile Bazkideak, jabeak ere badirenez, partaide dira kooperatibaren kudeaketan eta emaitzetan
- Kooperatibista berriak "Berezia" programan aritu dira, kooperatiben gaineko ezagutzak hartzeko

**Elorrio, 2017ko ekainaren 29a.-** [EROSKI](#)k 311 langile egin ditu kooperatibako bazkide 2016an, eta, hala, 8.046 lagunetara igo du kooperatiba nagusiko Langile Bazkideen kopurua iazko ekitaldian. 2015ean ere 166 hartu zituen, eta lehenengoak izan ziren, langile bazkiderik hartu gabe 5 urte igaro eta gero.

Hartu dituen guztietatik, %79 emakumeak dira. Bazkide berrien ia %93 EROSKIren hipermerkatuetan eta supermerkatuetan ari dira, eta gainerakoak EROSKI Bidaiak agentzian, plataforma logistikoan eta egitura nagusian. Salmenta guneeetan aritzen dira %95, eta horietatik gehienak freskoen atalean, non Zurekin eredu komertzialarekin bezeroari arreta pertsonal handiagoa eman nahi baitzaio.

*"Atsegingarria da langileen artean eredu kooperatiboa hedatzen jarraitzea. Izan ere, langile horiek borondatea eta erabakitasuna agertu dute jabetzaren, kudeaketaren eta emaitza ekonomikoen partaide izateko, eta, hala, EROSKIren proiektuaren aldeko konfiantza eta babesa erakutsi ez ezik, gure enpresa eredu honetan langile bazkidearen figurak berezkoa duen garrantzia hartu dute beren gain",* esan du EROSKIren Gizarte arloko Zuzendari Nagusiak, Iñigo Eizaguirrek.

EROSKIIn garrantzi handieneko erabakiak kooperatibaren gobernu eta ordezkaritza organoetan eztabaidatuta hartzen dira; zenbaitetan, erreferendum zabalak eginda, non Langile Bazkide guztiek izaten duten parte hartzeko eskubidea.

311 Langile Bazkide berriek "Berezia" programan parte hartu dute. Programa horren bitartez, enpresa-eredu kooperatiboaren balioak zein diren ikasten dute partaideek, eta kooperatibara txertatzeko laguntza hartzen dute; orobat kooperatibaren printzipioekin bat datozen eskubideak eta betebeharrak ezagutzen

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



dituzte. Programa honetan, antolamenduaren gaineko ikuspegi orokorra ematen zaie: EROSKI Taldearen eta haren nortasunaren ezaugarri nagusiak zein diren erakutsi, eta Zurekin eredu eta frankizien kudeaketa azaltzen zaizkie. Era berean, sakonago azaltzen zaie zein diren eredu kooperatiboaren jokabideak eta nola antolatzen den, baita sinboloak nola interpretatu behar diren ere.

Langile bazkide hauek hartzearekin, finkatu eta indartu egingo da EROSKIren kudeaketa kooperatiboaren eredu berezia, eta horrek Talde osoaren efizientzia eta lehiakortasuna handitzen lagunduko du; izan ere, horrela, langileak sozietatearen jabe ere badirenez —eta, beraz, enpresaren kudeaketan eta emaitzetan partaide—, konpromiso handiagoa hartzen dute.

EROSKI hasia da ziklo abiatu berriaren ezaugarri multzoa osatzen, zeinaren ezaugarriak hasiera batean baitira kooperatiba irabazietara itzultzea, denda propio berrien irekieran inbertitzea eta Langile Bazkide gehiago hartzea.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)